

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

AZKOITIKO UDALA

*Iragarkia*

2016ko abenduaren 28ko Udalbatza Osoak beste batzuen artean honakoa erabaki du:

*Lehendabizikoa.* Onartzea Azkoitiko Hiri Antolaketako Arauetan mugatutako 10. Sektoreko -Txalonerreka- 10.2 UE egikaritze unitateko P-2 izeneko lurzatiaren gaineko %86,15eko partaidetza zatitu gabearen titularitatea Azkoitia Lantzen, SA udal sozietateari doan lagatzeko espediente. Hauxe da Udalaren lurzoru-ondare gisa kalifikatua dagoen lursail horren deskripzioa:

*Deskripzioa:*

Hiritarra: bizitegirako ondorioztatu den Bi edo P-bi zenbakiko lurzattia.

Azkoitiko Hiri Antolaketako Arauetako 10. Sektoreko -Txalon Erreka- Bi egikaritze unitatean ondorioztatu diren lurzati zerrandan Bi edo P-Bi zenbakia dagokion lurzattia. Laukizuzen itxurakoa da. Hiru mila ehun eta laurogeita hamabost metro eta berrogeita bost dezimetro karratuko azalera du, honako eraikuntza aprobetxamenduari: hamahiru mila zazpiehun eta hirurogeita hamalau metro eta hamazazpi dezimetro karratu (t) sestra gainean, eta sei mila hirurehun eta laurogeita hamar metro eta laurogeita hamar dezimetro karratu (t) sestra azpian, sotoko bi solairu, behe solairua, zazpi goi-solairu eta estalkipeari dagokion profilarrekin. Gehienez ere erregimen orokorreko babes ofizialeko ehun eta hirurogeita zortzi etxebizitza sortzeko erabil daiteke, behe solairua merkataritza lokaletara bideratuta. Lurzati hori Txalon Erreka A-10 Areako Xehetasun Azterketan «A.10.bi.B» izenaz izendatua dagoen lurzati bera da. Honako mugakideak ditu: Iparraldean eta Mendebaldean, J lurzattia, jabari eta erabilera publikokoa, bideak eta espaloiak egiteko erabiliko dena, eta bizitegirako ondorioztatu den Bat edo P-bat zenbakiko lurzattia; Hegoaldean, D lurzattia, jabari eta erabilera publikokoa, espazio libreetara bideratua, eta J lurzattia, bideak eta espaloiak egiteko erabiliko dena; eta Ekialdean, bizitegirako ondorioztatu den Bat edo P-bat zenbakiko lurzattia, eta D lurzattia, espazio libreetara bideratua. Eraiketak egin ostean, lurzati hori jabetza horizontalean banatu ahal izango da. Era berean, lurzati honen gaur egungo partzelazio baldintzak aldatu ahal izango dira Xehetasun Azterketan, lurzati honetan egingo diren eraikinen funtzionamendu hobereana edo egokiena lortze aldera.

Urbanizazio zamak: Horrelakorik ez dago.

Azpeitiko Jabetza Erregistroan inskribatuta dago, 2014. tomoan, 235. liburuan, 167. folioan, 12611 zenbakiko finka gisa, 1. inskripzioan.

*Bigarrena.* Lagapenak honako baldintzak bete beharko ditu:

1. Lurzati hau Udalaren lurzoru-ondararako aurreikusi diren xedeetara bideratuko da; zehazki, erregimen orokorreko babes ofizialeko etxebizitzak egiteko erabiliko da.

2. Lurzati honen gaineko %86,15eko kuotaren doako lagapena eskritura publikoan formalizatuko da. Aldez aurretik, dena den, sozietateak kudeaketa plan bat aurkeztu eta Udalak onartu egin beharko du. Plan horretan bermatuko da lurzattia gaur egun indarrean dagoen plangintzan ezarritako xedeari

AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

*Anuncio*

El Ayuntamiento Pleno en sesión celebrada el 28 de diciembre de 2016 acordó entre otros lo siguiente:

*Primero.* Aprobar el expediente para la cesión gratuita a la sociedad municipal Azkoitia Lantzen S.A. de la titularidad de la participación indivisa del 86,15% sobre la parcela denominada P-2 de la U.E. 2 del Sector 10 -Txalonerreka- de las Normas Subsidiarias de Planeamiento de Azkoitia, calificada como Patrimonio Municipal de Suelo, con la siguiente descripción:

*Descripción:*

Urbana: parcela resultante residencial número dos o P-dos.

Parcela Dos o P-dos de la relación de parcelas resultantes de la unidad de ejecución Dos del Sector diez -Txalon-Erreka- de las Normas Subsidiarias de Planeamiento de Azkoitia. Presenta forma rectangular. Tiene una superficie de tres mil ciento noventa y cinco metros con cuarenta y cinco decímetros cuadrados, y un aprovechamiento edificatorio de trece mil setecientos setenta y cuatro metros diecisiete decímetros cuadrados (t) de sobre rasante y seis mil trescientos noventa metros noventa decímetros cuadrados (t) de bajo rasante, con un perfil de dos plantas sótano, planta baja, siete plantas altas y bajo cubierta, que puede ser destinada para la creación de un número máximo de ciento sesenta y ocho viviendas de protección oficial de régimen general y locales comerciales en planta baja. La citada parcela se corresponde con la Parcela «A.diez.dos.B» del Estudio de Detalle del Area A-diez Txalon Erreka. Limita: al Norte y Oeste, con parcela J de dominio y uso público destinada a viarios y aceras y parcela resultante residencial número uno o P-uno; al Sur, con parcela D de dominio y uso público destinada a espacios libres y parcela J destinada a viarios y aceras; y al Este, parcela resultante residencial número uno o P-uno y parcela D de dominio y uso público destinada a espacios libres. Una vez edificada dicha parcela, podrá ser objeto de división en propiedad horizontal. Igualmente, y a través de un Estudio de Detalle, se podrá proceder a alterar o modificar las condiciones de parcelación actual de la presente parcela en orden al mejor o más correcto funcionamiento de las edificaciones a desarrollar sobre la presente parcela.

Cargas de urbanización: No existen.

Inscrito en el Registro de la Propiedad de Azpeitia, Tomo 2014, Libro 235, Folio 167, Finca 12611, n.º de inscripción 1.º

*Segundo.* La cesión quedará sometida a las siguientes condiciones:

1.º La parcela cedida será destinada a los fines previstos para el Patrimonio Municipal de Suelo, y en concreto, a la construcción de viviendas de protección oficial de régimen general.

2.º La cesión gratuita de la cuota del 86,15% sobre la citada parcela será formalizada en escritura pública una vez sea presentado por la sociedad y aprobado por este Ayuntamiento un plan de gestión que garantice la afectación de la parcela al destino establecido por el planeamiento en vigor, y a los fines

lotuko zaiola, eta Udalaren lurzoru-ondarearen helburuetara bideratuko dela; eta, gainera, sozietateak bete egingo dituela lurzati horri dagokion hirigintza esparruari buruz hartutako konpromisoak. Horren guztiak bat etorri behar du Azkoitia Lantzen SAK egingo duen 2017-2020 Bideragarritasun Planarekin.

Kudeaketa Plana, sozietateak 2016ko ekitaldiko kontuak formulatu aurretik aurkeztu beharko da Udaletxean.

3. Arestian aipatutako baldintzak bete ezean, lagatako ondasuna Azkoitiko Udalaren esku geratuko da berriro ere, bere elementu osagarri guztiekin.

*Hirugarrena.* Espediente hau 15 egunez jendaurrean ikusgai jartzea, interesdunek espedienteaz aztertzeko eta, hala ego-kituz gero, bidezko alegazioak egiteko aukera izan dezaten. Hori horrela, iragarkiak argitara emango dira Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN, Azkoitiko Udaletxeko iragarki taulan, eta Gipuzkoako Ataria gardentasun orrian.

*Laugarrena.* Ebazpen hau behin betiko egitean, alkate jauna, Javier Zubizarreta Zubizarreta, doako lagapenaren eskritura publikoa egiteko ahalmentzea.

*Bosgarrena.* Espedientearen kopia Gipuzkoako Foru Al-dundiari bidaltzea, berorren berri izan dezan eta espedienteak bidezko ondorioak izan ditzan, Toki Entitateen Ondasunen Erregelamenduak 109.2 artikuluan xedatutakoari jarraituz.

*Seigarrena.* Ebazpen hau interesdunei jakinaraztea, eta entitate lagapen-hartzaileari lagapen hori bere baldintza guztiekin onartzeko azal dadin eskatzea; eta, egoki bada, aipatutako baldintza guztiak bete ostean lagapena eskritura publikoan formaliza dezan agintzea.

Azkoitia, 2016ko abenduaren 29a.—Alkatea. (9200)

del Patrimonio Municipal de Suelo, así como el cumplimiento de los compromisos adquiridos por la sociedad en relación con el ámbito urbanístico del que forma parte. Todo ello deberá ser acorde con el Plan de Viabilidad 2017-2020 que deberá elaborar la sociedad Azkoitia Lantzen S.A.

El Plan de Gestión deberá ser presentado ante este Ayuntamiento con anterioridad a la formulación de las cuentas de la sociedad correspondientes al ejercicio de 2016.

3.<sup>a</sup> El incumplimiento de las anteriores condiciones determinará la reversión del bien objeto de cesión, con todos sus elementos accesorios, al Ayuntamiento de Azkoitia.

*Tercero.* Someter el presente expediente a información pública durante el plazo de 15 días, a fin de que las personas interesadas puedan examinar el expediente y en su caso, formular alegaciones. A tal fin, se publicarán los correspondientes anuncios en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa, el tablón de anuncios del Ayuntamiento de Azkoitia y la página de transparencia Gipuzkoako Ataria.

*Cuarto.* Una vez definitiva la presente resolución, facultar al Alcalde, D. Javier Zubizarreta Zubizarreta, para que suscriba la correspondiente Escritura Pública de cesión gratuita.

*Quinto.* Remitir copia del expediente a la Diputación Foral de Gipuzkoa, para su conocimiento y efectos oportunos, conforme dispone el art. 109.2 del Real Decreto 1372/1986, de 13 de junio, Reglamento de Bienes de las Entidades Locales.

*Sexto.* Notificar a los interesados la presente resolución, emplazando a la Entidad Cesionaria a los efectos de aceptación de la misma en todos sus términos, y en su caso, instando la elevación a Escritura Pública de la cesión referida, una vez cumplidos sus condicionantes.

Azkoitia, a 29 de diciembre de 2016.—El alcalde. (9200)